

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO KUADRILLA

**Jendaurrean jartzea hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren tasaren kontribuzio erroldak, Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zambranako udalerrietakoak, eta borondatezko epean ordaintzeko moduan jartzea 2020ko bigarren seiheleko ordainagiriak**

Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zambranako udalerrietan hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren 2020ko bigarren seiheleko tasa ordaindu behar dutenen errolda osatu da, eta 2020ko irailaren 28ko ebazpen baten bidez onetsi. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Añanako Kuadrillaren egoitzan (Foruen plaza, 11 – 01213 Ribabellosa - Araba) aztertu ahal izango dute espedientea, 10:00etatik 13:00etara.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, huraosatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikulua 3. apartatuan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak kuadrillaren lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik zehaztutako epeetan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2020ko urriaren 30ean hasi eta abenduaren 31n bukatuko da, bi egun horiek barne direla. Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2020ko azaroaren 5ean kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei beren zerga egoitzara bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo dute udal bulegoek.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Añanako Kuadrillak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epean ordainketarik egin ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ribabellosa, 2020ko irailaren 28a

*Lehendakaria*

*JAVIER URIARTE JAIRO*